

TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

2001eko urria - 34. zenbakia


**Jaietako
argazki
erreportaia**

**Kelegaz
berbetan**

ALKARRIZKETEAK

Xabier Goitia





BOLIBAR

JATETXEA

Tfnoak.: 946 19 41 41 - 946 19 30 00

BAKIO



EROSLE

Etorkizuna!

Tfno.: 946 19 49 00

BAKIO

ASKADA

KAFETEgia


Pintxo ezin hobeak

Tfnoa. 94 619 40 06
48130 BAKIO

H

ARIMYNE

OSTATYA



Benta-Alde, 95
Tfnoa.: 946 19 40 22

BAKIO



TABERNA - JATETXEA - OSTATUA

GAZTELU-BEGI

San Pelaio Auzoa, 86
Tfnoa.: 946 19 49 24

BAKIO

Argitaratzailea: Bakioko Euskera Zerbitzua, Bakioko Kultur Etxea, Urkitzaur 28, 48130 Bakio, Tel: 94 619 40 01 edo 94 619 33 69, Faxe: 94 619 31 18. **Erredakzinoa:** Joseba Terreros, Gorane Oleaga, Unai Beitia eta Iniaki Martiartu. **Laguntzaileak:** Anartz Ormaza, Itxaso Urazurrutia, Jonjo Agirre, Garikoitz Etxebaria, Ainara Madariaga, Egoitz Garai, Maria Santisteban, Etor Duoandikoetxea, Iratze Ormaza eta Jon Aingeru Goikoetxea. **Argazkilariak:** Jorge Busturia, Kike Martinez, Aitor Ibarrondo, Itxaso Urazurrutia eta Iniaki Martiartu. **Koordinazinoa eta hizkuntza ardurea:** Joseba Terreros eta Iniaki Martiartu. **Irarkolea:** GRAFILUR. **Ale kopurua:** 1.000. TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako en esanik zein eritxirik beraren gan hartuten,artikuluegileak baino.


TXIRRITXOLA

BAKIOKO EUSKAL ALDIZKARIA

Hiruhilabetekaria - 2001eko urria

<i>Zer-Non</i>	3
<i>Berbetan: Xabier Goitiagaz</i>	4
<i>Barri laburrak</i>	7
<i>Gai berezia</i>	8
<i>Bitxikeriak</i>	10
<i>Bestelako gaiak</i>	12
<i>Gure artean: Kele</i>	14
<i>Zuhur ibili</i>	15
<i>Herri barriak</i>	16
<i>San Joan Dolozeko argazkiak</i>	21
<i>Eritxia</i>	24
<i>Baserria: (H)Ormatza</i>	25
<i>Itxas-Alde</i>	26
<i>Taldeen Txokoa</i>	27
<i>Ipuinak</i>	28
<i>Bakioko euskerea XII</i>	31
<i>Kultur leihoa</i>	32
<i>Liburutegiaren txokoa</i>	33
<i>Ezetz jakin</i>	34

34



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

Xabier Goitiagaz berbetan

Gure herrian Xabier Goitia oso ezaguna da urte asko emon dualako beharren Itxas-Alde dantza taldea aurrera atara eta sendotu guran. Edozelan be, alkarrizketa honetan dantza taldea alde batera itzi eta beste gai batzuk jorratu gura izan doguz, berbarako beraren ibilbidea, lanbidea eta Bilbo zein Bakioren inguruan daukazan eritxiak; hona hemen, bada, Xabierrek emoniko erantzun interesgarriak.

Txirritxola: Xabier, herrian jende gehienak Itxas-Alde dantza taldeko burua zaralako ezagutu arren, lanbidez Bilboko Udaleko arkitektoetariko bat zara. Zergaitik aukeratu zenduzan arkitektura ikasketak?

Xabier Goitia: Umetan galdetzen eustaenean nagusia izankeran zer izan gura neban, nik beti erantzuten neban arkitektoa izan gura nebala. Ez etxean ez familiartean be ez dago arkitektura munduan ibilitako inor, baina horixe buruan sartu eta holan erabagi neban ikasketa horreek egitea.

T.: Oker ez banago, Iruñeako Unibertsitatean ikasi zenduan. Sasoi horretan zelango giroa egoten zan unibertsitatean?

X. G.: Alde batetik, esan beharra dago, Iruñeako Unibertsitatea Opus-ekoa izanda be, arkitektura eskola beti izan dala mundu horretatik asaoen lotu dan fakultatea. Beste alde batetik, ni mundu horretatik asao ibilteko amesagaz joan nintzan, eta, esaterako egon nintzan ikasle egoitza, erderaz "colegio mayor" esaten jakona, ez zan Opus-ekoa. Ganera, karrera ikasten hasi nintzan urtean, 1975.ean, Franco hil zan eta euskal giroa berpizteko momentu lez

ikusten zan sasio hori. Ikasle egoitzan bertan alderdi politiko guztien batzar, berbaldi eta hitzaldi asko be asko egon ziran eta han bertan, kasu baterako, gogoratzen naz Garaikoetxea jauna hasi zala ezaguna izaten.

T.: Karrera amaitu eta zeri ekin zeuntson?

X. G.: Zoritxarrez sasoi hartan ondino be indarrean egon zan soldaduskea; edozelan be, soldaduskara joan aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiak langabetuentzako eta tituluentzako hainbat programa atera eta nik horretarako eskaerea egin neban. Bien bitartean soldaduskara joan eta han hogeita bi egun egin ostean, elbarri edo ezinduaren titulua eskuratu neban. Etxera bueltatu eta handik gitxira aldunditik dei egin eustaen. Programa horren barruan, udalei laguntzeko atala egoan eta niri Bilboko Udalean urtebeteko kontratua egin eustaen Otxarkoagako etxebizitzak konpontzen ahalegintzeko egitasmo baten barruan. Holan bada, karrera urtarrilean amaitu eta bagilean hasi nintzan beharren; horren ostean, kontratatuta segitu eta apur bat geroago oposizinoa atera behar izan neban.

T.: Zeintzuk dira udaletxean bete dozuzan zereginak?

X. G.: Une honetan hiru arlotan jarduten dot, hondakin edo sastarren arloan, lorategiengan eta udaleko eraikinen mantenimenduan. Dana dala, bost urterik bost urtera lanpostua aldatzen izan dot. Halan, hasikera batean Otxarkoagako etxebizitzak konpontzen jardun genduan; ostean, urigintzako plangintza eta gestinoaren munduan egon nintzan; geroago, aurrien arlora pasa nintzan, handik kaleko obretara (proiektuak, obrak, mantenimendua, espaloiak, ura, argia...) eta azkenik gaur egun betetzen dodan zereginera.

T.: Beharbada, urigintzaren hainbeste arlo ezagututa, azaldu ahal izango deuskuzu zelan izan leiteke hiru urteko epean etxebizitzaren prezioa hirukoiztu izana?

X. G.: Horretan eskaintza eta eskariaren legeak agintzen dau eta arrazoi bat baino gehiago dagoz. Lehenengo eta behin, Euskal Herrian ez dago lur urbanizagarri askorik, jende asko bizi da oso eremu txikirean; bestetik une honetan diru asko dabil merkatuan, euroa gitxi barru indarrean sartuko danez, diru baltzak urten dualako; azkenik, azken urte-

tan ekonomia ondo ibili da eta herri-tarrek eskuragarritasun maila handia-goia lortu dabe. Dana dala, etxebizitzaren prezioa gazteentzako arazo handia izan da beti; ni ezkondu nintzanean be arazoa izan zan, gure aita-amarentzako be korapilatsua izan zan eta gure aitite-amamen kasuan zer esanik ez, sasoi haretan baserri gehienak alogeran egoten ziralako. Edozelan be, guztiok kezaten ibili arren, nire eritxiz, gero eta hobeto bizi gara; behintzat, jendea aisialdian, bidaietan eta beste kontuetan dirua gastatzeko prest dagoala emoten dau. Edozein kasutan, etxebizitzaren prezioa karu dago.



T.: Bertako arkitektoa izanda, zelan ikusten dozu Bilboko garapen urbanistikoa? Izan be, erdigunea gero eta politago, txukunago eta apainduago dago, baina hainbat auzotan kezaz dabiltz hainbesteko azpiegutararik edo ardurarik ez dagoalako.

X. G.: Ni oso bilbotar sentitzen naz eta Bilbo beti defendatu egiten dot. Horregaitik esan behar deusut ez natorrela bat esan dozu horregaz. Bilbo nik ezagutzen dodan uri bakarra da erdigunea eta auzoak bardin dagozana. Kasu honetan Gran Vía aitatzen da beti, eta egia da tarte bat konponduta dagoana, baina Moyuatik Jesusen Bihotzaraginoko tarteko espaloiak eta, esaterako, Abusu edo beste edozein auzotako espaloiak, aspaltoa, argiak eta jesar-lekuak bardinak dira, eta hori oso uri gitxitan pasatzen da. Beste alde batetik, erdigunean azpiegitura gehiago dagoala esateagaz be ez nator bat, kasu baterako erdigunean bizi diran umek eta gazteek ez dakie non jokatu futbolea. Ganera, nik uste dot Bilbo oso-osoan hobetzen doala apurka-apurka, ez bakarrik erdigunea.

T.: Bilbo gero eta politagoa, baina behar dan moduko berdegunerik ez, ezta?

X. G.: Tira, horretan be tranpa eta amarru asko egiten dabe, ni orain lorategien sailean nago eta ez nator guztiz bat esaldi horregaz. Kasu baterako Donostia eta Bilbo alderatzen diranean, beti esan ohi da Donostian berdegune gehiago dagoala, baina Concha hondartza kontuan

hartzen da ala ez? Eta Igeldo? Bilbon Pagasari kontuan hartzen da ala ez? Eta horreetxek dira konporazioak eginkeran aitatzen diran tranpak. Hala eta guztiz be, argi dago Bilbon berdegune gitxi dagozana, baina geldiro-geldiro egiten goaz, kasu baterako Txurdinagan egindako Europako Parkea eta erreka albo biak konpontzeko egindako beharrak. Ganera, ondino be parke handi bi egiteko lekua geratzen da, baina aitortu behar da leku batzuetan ez dagoala tokirik, etxebizitzaren dentsitatea lar handia dalako, kasu baterako Santutxun.

T.: Bilbok sasoi baten zabaltzeko euki eban ardatzea Plentziatik Leioaraginoko tartea izan zan eta gitxi barru Artxandako tunelei esker errepidez ondoen komunikatuta egongo dan beste eskualde bat Mungia eta alboko herriak izango dira. Azken urteotan ikusitakoaren arabera eta gero eta parajeago dagoala kontuan hartuta, Mungialde osoa eta, horregaz batera, Bakio be Bilbo zabaltzeko hurrengo gunea izango da?

X. G.: Joan dan mendearen kultura etenbako zabalkuntzearena izan da arlo guztietan, ekonomian, teknologian eta bestelako esparruetan. Baina hori guztia gelditzeko unea ailegatu behar izango da. Euskal Herrian biztanleria ez doa gorantz; beraz, nik ez dot pentsatzen Bilbok gero eta handiagoa izan behar dauanik, teoriar zabalkuntza hori gelditu beharko litzateke hemendik gitxira. Edozelan be, udal bakotxak bere

herria indartu gura izaten dau; hori dala eta, herrien arteko lehia sortzen da: Bermeok Gernikak baino gehiago izan gura dau, Gernikak Mungiak baino gehiago eta Mungiak Zamudiok baino gehiago. Horretarako, udalek urigintza arloa indartzen ahalegintzen dira. Eta honetan be zikloak hartu behar dira kontuan; izan be, etxebizitzaren kopuruari jagokonez, mugara ailegatu garalako daukat. Adibide bat ipintearren, turismoa dala eta, Bilbon hotel gehiago egin beharko litzateke? Ni gogoratzen naz orain dala hamar urte zineak eta antzokiak itxi eta squashak eta bingoak zabaltzen hasi ziralako eta guztiak izaten ziralako squashak edo bingoak; ikusi orain horretariko zenbat itxi diran eta zenbat zine eta antzoki zabaldu. Mungialdeagaz gauza bera pasatzen da, ze nik ez dot uste etxebizitzaren kopurua bikoizteko behar beste jende dagoanik. Ganera, gero esango dogu Bilbo erdia hutsitu dala eta erdigune hori betetzeko politikak bultzatuko dira. Europako hainbat uritan, esate baterako, erdigunea zerbitzuetarako izaten da (dendak, bulegoak...), eta herritarrak uritik kanpoko gunea zabalgotean bizi dira, baina euren bizitzaren %20 galtzen dabe joan-etorrietan eta Mendebaldeko herrialdetan kontsumitzen dan energiaren %60 inguru garraoian gastatzen da. Lehen, kasu baterako, ikastetxeak erdigunean egoten ziran, baina halango baten danak atara ziran kanpora, Leiora, Loiura... Zenbat ordu egiten dabe umek autobusetan? Zenbat lagun daukez umek euren auzoan? Zer da hobia? Etxetik paraje egotea eta lagunak auzoan bertan

eukitea edo eskolan ia egun osoa emon behar izatea? Gaur egun joan-etorrietan bizitzaren zati handi bat joaku, errepideetan, zoritzarrez, arazo asko egoten dira eta ez dot uste hori oso ona danik.

T.: Garraioa eta trafikoa aitatu dozuz; inoz arinduko da Bilbo barruko trafiko dentsitatea?

X. G.: Lehenengo eta behin, kontuan hartu behar da orain dala hamar urte Euskal Herrian eta Bilbon pertsona bakoitzeko euki genduan automobil kopurua Europako txikienetariko bat izan zala. Gaur egunean, oster, familia bakoitzean, gitxienez, kotxe bi edo hiru egoten dira, bat edo bi gurasoena eta bestea seme-alabena. Horrek esan gura dau kotxe kopurua hirukoiztu dala hamabost urteko epean. Horrek ez dauka, beraz, konponbide errazik. Beste alde batetik, Bilbo uri zaharra da, eta azpiegiturak ez ziran pentasatu hainbesteko automobil kopurua kontuan hartuta. Ganera, jendea oso eroso izaten da eta kotxea edozein gauzatarako hartzen dau, baita Pozan txikito bat hartzeko be. Oso garbi ikusten da etxerik ez dagoan kaleetan ez dagoala auto-ilararik; esaterako "Campo Volantin"en erreka ondoko bidean sekula be ez da auto iladarik egoten, baina etxe ondoko bidean bai eta beste horrenbeste pasatzen da Mazarredon. Ez da problema erraza eta lan handia egin beharko da zeozer konpontzeko.

T.: Bakiora bueltatuz, zelan ikusten dozu Bakioko urigintza antolamendua?

X. G.: Alde batetik, esan beharra dago jendea Bakiogaz oso kritikoa izaten dala beti, baina hona datorrena berton lotzen da; horrek esan gura dau Bakiok oso gauza erakargarriak daukazala. Beste alde batetik, azken urteotan aldakuntza handiak egon dira: espaloiak egin ziran eta geroago itsas ibiltokia; horrek guztiorrek herria hobetu dau. Eta beti aitatzen dogu orain dala hogeita hamar urte egin zana deskalabru bat izan zala, baina hori orduko burutasunagaz egin zan, nahiz eta egia izan espekulazinoa eta demokrazia falta egon zirana.

Edozelan be, sasoi horretako ikuspuntutik egindakoak ezin dira gaurko ikuspuntutik epaitu, beharrianak eta premiak oso desbardinak izan zirala. Gauza bera gertatzen da Santutxu aitatzen danean. Baina jendeak besteena baino ez dau ikusten, ze hareatza ondoko etxebizitzak egin ziranean, oso kritikoak izan ginan arkitekto eta agintariakaz, baina lurak bakiotarrenak izan ziran eta ez kanpotarrenak. Oso gurekoiak izaten gara, beti pentsatzen dogu nireak poltsikora joan behar dauala eta besteena parkeak egiteko erabili behar dala.

T.: Jakingo dozun lez, Bakioko



arau subsidiario barriak hemendik oso gitxira egongo dira indarrean. Zer deritxezu arau subsidiario horreei?

X. G.: Egia esan, arauak kanpotik apur bat baino ez dodaz ezagutzen. Dana dala, nire eritxiz, herrian espektatiba edo itxaropen lar sortu dira, jaube askok, lur urbanizagarriak salduta, oso erraz aberasteko bidea ikusi dabelako. Beste alde batetik, nik uste dot lur urbanizagarrien eremua lar handia dala, eta ez dakit hori Bakiorentzat ona izango dan ala ez. Urigintzak, ganera, ez dau izten atzera egiten, ze gauza bat txarto egiten bada, urte askotarako izaten da; halandaze, edozein urbanizazio egin baino lehenago oso ondo pentasatu behar da zelan burutu.

T.: Azken hamar urteotan biztanleen kopurua nahiko handitu da Bakion, 1.100 biztanle eukitetik 1.700 eukitera pasatu da; hona azken

sasioan bizitzen etorri dan jende gehiena ez da herrian ikusten aste barruan, belu ailegatzen diralako Bakiora. Herria lo egiteko leku bihurtuko jaku?

X. G.: Bai, nik uste dot halan gertatuko dala, ez dala lar ona baina, era berean, ez daukala konponbide errazik; izan be, herrian bizi ahal izateko, jarduera ekonomikoak indar handiagoa euki beharko leuke eta arlo horrerik begira Bakio punta baten dago, eta ez dago errepide nagusiakaz ondo komunikatuta; dana dala, jarduera ekonomiko batzuk bultzatzeko bideak topatu beharko litzatekez. Ganera, nire eritxiz, bakiotarrak eurak ez dira oso ekintzaileak, eta batzuetan apur bat pasiboak dirala pentsatzen dot.

Esate baterako, Bakion ez dago turismoa bultzatzeko azpiegitura pribaturik, eta bertoko jarduera batzuk be Bakiotik kanpoko pertsona batzuek atara behar izan dabez aurrera, besteak beste, txakolina. Azken hori erakundearen arazoa baino gizartearen arazoa da eta ez dauka konponbide errazik.

T.: Edozelan be, Bakion turismoaren inguruko jarduerak ekonomikoak daukagu. Amaitzeko, zelan ikusten dozu herriko turismoa arloa?

X. G.: Guk, bai familiagaz bai ltxas-Aldegaz be makina bat bidaia egiten dogu eta esan leiteke gaur egungo turismoa ageriko moduan aldatu dala, jendea daborduko ez doalako hareatzaren atzean huts-hutsean. Kalitateko turismoa bultzatu behar da eta horretarako Bakion azpiegiturak falta dira, ez dago herriaren izakerea erakusteko instalaziorik, berbarako museo, baserri edo errota aipaindurik. Hotelak be gitxi dira, ez daukagu oroigarriak edo bertoko produktuak saltzeko denda bakar bat be... Nik Bakio oso berde ikusten dot arlo honetan eta ez dot uste azpiegiturak lar handiak edo korapilatsuak be izan behar dabenik. Arazo honetan, ganera, herritarrak oso pasibo ikusten dodaz, sarritan erakunde publikoek egingo dabeneren begira egoten diralako.

Bedarra ebagiteak be kutsatzen dau


Bedarra ebagiteko makinagaz ordu betean ibilteak berebidez 150 kilometroko bidaia egiteak beste kutsatzen dau. Hori da, behintzat, Suediako ikertzaile talde batek egindako azterketearen emoitza. Baina tresna horrek ez dira kutsatzen daben bakarrak; izan be, zerra mekanikoez eta motorra dauken beste hainbat erremintak be arazo bera sortarazoten dabe.

Horrelako makinek gasolinaz elikatutako motorra eukiten dabe eta Estokolmoko Unibertsitateko Roger Westerholm-ek dinoan lez, gasolina errekeran hidrokarbuero aromatiko kutsagarriak eratzen dira. Substantzia horreetako batzuk oso arriskutsuak dira osasunerako, biziena eragiten dabelako. Isuriak gitxitu eta arazoa konpontzeko, autoek dauken katalizatzaileen antzekoa ipintea proposatu dabe.



Nekazaritza biologikoa ohikoa baino errentagarriagoa?

Sarritan entzun dogu produktu organikoen produkzioa ohiko metodoen bitartez hazitakoe-na baino karuagoa dala. Ganera, ordaintzen doguzan prezioak ikusita, halan dala sinesten dogu.



Washington Estatuko Unibertsitateko zientzialari talde batek sagarrekaz egindako ikerketearen arabera, ostera, ez dauka horrela gertatu beharrik. Areago, nekazaritza biologikoa ohiko nekazaritza baino errentagarriagoa ei da. Ikerketea egiteko, ikertzaileek lursail bat hirutan banatu eta sail bakotxean metodo desbardina erabili eben landatutako sagarrondoak hazteko. Lehenengo sailean sistema organikoa erabili eben, hau da, ongarri modura konposta, satsa eta gorotza erabili ebezan eta izurriteak metodo mekanikoen bitartez kontrolatu ebezan. Bigarreanean, barriz, ohiko metodoa erabili eben, hau da, pestizida kimikoak eta ongarri sintetikoak. Hirugarren sailean, barriz, metodo biak nastatu ebezan.

Emoitzen arabera, sistema organikoaren bitartez jagondako lursailean jadetsi ziran energia-eraginkortasunik eta errentagarritasun ekonomikorik handienak. Ganera, sail horretako lurraren kalitatea hobea zan eta bertako zugaxetatik jasotako sagarrak besteak baino apur bat gozagoak izan ziran. Barri hau irakurrita, emoten dau ez dagoala produktu organikoakaitik gehiago ordaintzen jarraitzeko oinarritzko arrazoirik. Dana dala, entzun egin behar metodo biologikoa erabilten daben baserriarrek albiste horren ganean dauken eritxia.

Koloretako paper elektronikoa

Bostongo E LINK enpresak koloretako paper elektronikoa asmatu dau. Ohiko zelulosazko paperaren kasuan lez, islapena da paper horren oinarria. Hau da, ez dau barruko argirik behar idatzitakoa ikusi ahal izateko, kristal likidozko pantailakaz gertatzen dan moduan.

Koloretako pantailea lortzeko, pantaila monokromoaren ganean koloredun iragazki mehe bat ipini dabe, koloretako LCDak lortzeko egiten dan lez. Iragazki horreekaz, pixelak gorri, orlegi edo urdin ikusiko dira, azpiko pixela zuria izan arren. Azpiko pixela baltza bada, iragazkiak oso gitxi islatzen dau; beraz, ez da kolorerik ikusiko.

Enpresako arduradunek azaldu dabenaren arabera, energia elektrikoa papereko irudia aldatzen danean baino ez da kontsumitzen. Ganera, irudia sortuta badago, pantailea amatatu ostean be ikusi daiteke. Asmatzaileen eritxiz, urte bi barru sistema hori prest egon leiteke orde-nagailu eroangarrietan, sakelako telefonoetan eta antzeko tresnetan erabilteko.

MOGITZEAREN ABANTAILAK

Gauza jakina da kirola egitea, lantzean behin mogitzea, igogailua hartu beharrean etxera eskaileretan barrena igotea, edota kotxea edo autobusaren ordezkari bizikletea hartu zein oinez abiatzea guztiz langungarriak dirana gaixotasunak saihesteko.

Baina zergaitik da ona kirola egitea? Zergaitik eragiten deus ariketak modu positiboan garunari? Gaur egun, zientzialariek argitu deuskue arazoa: kirolaren edo ariketa fisikoaren praktikak endorfinak askatzen dauz odolean eta horreek analgesiko naturalen moduan jokatzen dabe, autoestima hobetuz, antsitatea gitxituz eta estresari aurre egiteko gaitasuna gehituz.

Kirola edo ariketa egiteak gizonezkoari laguntzen deus, aldi beratan, inpotentzia sexuala gaintzen. Holantxe adierazoten dau, behintzat, Bostongo Unibertsitateak bederatzi urtean 600 gizonezkogaz egindako ikerlanak. Ondorioa hauxe da: 50 urte inguruan kirola egiten modu erregularrean hasten diranek inpotentzia jasateko arrisku gitxiago dauke, dopamina eta serotonina lako substantziak askatuz, zirkulazio sistema eta sistema endokrinoa hobetzen diralako.

Mesedeak kontaezinak dira

Kirola egiteak dakarren mesederik handienetakoa testosteronaren produkzioa (barrabiletan sortzen dan hormona sexual maskulina) handitzea da. Horrek pertsonaren inmunitatea handitzen dau, globulu gorrien kopurua gehitzen dalako, eta, ondorioz, infekzioak be gitxitzen dira.

Hazurrei be mesede egiten deutse ariketak, hazur masari eusten, hazur galereari aurre egiten eta prozesu hori, neurri baten, iraultzen laguntzen dualako. Adin guztietan ona izaten da kirola modu



normalean eta erregularrean egitea, beti be pertsonaren egoera fisikora behar lez egokitu ezkeru.

Giltzudurek be eskertzen dabe ariketea. Izan be, jarraian mogidu ezkeru, lubrikatuago egon ohi dira, malgutasunari eutsiz eta degeneraziozko ortopatia batzuen eraginak gitxituz. Ariketa egiten daben edateko pertsonai igartzen jake: hobeto mogitzen dira, bizkor eta animatuago dagoz eta beraz independenteagoak dira. Ganera, behearen ganera jausteko arriskua be murrizten da.

Ariketa fisikoak, neurritz egin ezker, gure sasoi honetako izurriterik txarrenetariko bat be gitxitzen dau: biziena, hain zuzen be. Halan, koloneko eta bularreko biziena %20-40an gitxiago agertzen dala ikusi da. Zergaitik hori? Aurki, tumore horreek senti-berak dira hormonakaz, hau da, zenbat eta hormana batzuen mailea handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago tumorea garatzeko. Eta ariketa fisikoak, modu erregularrean egiten danean, estrogenoak gitxitzen dauz; eta hesteen mogikortasuna handitzen dan ezker, toxinek be kontaktu laburragoa dauke kolonagaz.

Bihotzaren osasuna be hobetu egiten da mogimenduagaz. Frogatuta dago ariketa fisikoa erregularki egiten daben pertonek gitxiagotan eukiten dabezala gaixotasun kardiobaskularrak, arrisku faktoreak murrizten diralako. Ariketak kolesterol ona gehitu, hipertentsinoa zein II. motako diabetea modu naturalean kontrolatu eta estresa gitxitzen dau.

Gakoa irautean dago

Konstantzia da gakoa, ez etsitzea. Baina eliteko kirolariek be ariketa egiteari izten deutoenean, euren emoitzak asko kaskartzen dira. Washinton-go Unibertsitatean egindako ikerketa batek ondorio hau emon eban: sasoi fisiko ezin hobean egozan kirolarrien talde batek 12 astez itzi eutson kirola egiteari. Eta ostera be hasi ziranean, euren entrenamendu aerobikoaren gaitasunaren erdia galdu ebela ikusi zan. Horregaitik, onena egunean-egunean kirola egitea da: mesedagarria izan eta bigarren mailako eraginik ez eukiteaz ganera, ariketa egitea merkea da, eta gustuko ariketea topatu ezker, ez da larregizko sakrifizinorik egin behar.

Baina, jakina, ariketeak eragin prebentiboa eta osasungarria eukiteko, konstantea izan behar da: gitxienez 45 minutu, astean hirutan. Eta zein mota-tako jarduera itaunduko dozue? Ahal bada, beti hobe da beti ariketa aerobikoa eta 35 urtetik gorakoa bazara, ariketeari ekin aurretik txekeo bat edo osasun azterketa espezializatu bat egitea komeni da.

Uger egitea, bizikletan ibiltea, arineketan egitea, oinez ibiltea edota eskiatzea, beti be modu progresiboan eta neurritz eginez, ezin hobeak dira gorputzarentzat. Kontua mogitzea da. Eta aholku horrek edozein edadetarako balio dau, baina batez be 30 urteren inguruan bazagoz, edade horretantxe hasten da eta ñondino be... prebenitzeko sasoiat. Dana dala, ariketea, edozein edadetakoa zarala be, irakurle laguna, ondo eta neurrian egin ezker, beti izaten da mesedegarria.

10 arrazoi mogitzeko

Inpotentzia. Ariketa fisikoak, sarritan egin ezker, disfuntzino sexual hori aurrejagoten laguntzen dau, odol garaztapena errazten daualako. Edadean aurrera doazenen kasuan, batez be.

Kolesterola. Mogimendua da kolesterol ona altxatu edo jasoten dauan botika edo erremedio bakarra. Mogidukeran, bai kolesterola eta bai triglizeridoak be metabolizatzen dauan entzima baten produkzioa estimulaten da.

Diabetea. Frogatuta geratu da jarduera edo ariketa fisikoak gitxitu egiten dauala II. motako diabetea jasaten daben pertonen kopurua.

Bihotza. Pertsona aktiboak bihotzekoa edo hipertentsinoa eukiteko arrisku txikiagoa dauka, jarduera erregularra eta neurritzkoa bada. Baina "asteburuko kirolariek" disgustu latzak euki leikiez.

Hazurrak. Ariketak osteoporosiaren kontra egiten eta hazur masari bere mailan eusten laguntzen dau. Hazur hauskorrek prebenitzeko be balio dau, hausturen arriskua gitxituz.

Artritisa. Gaixotasun hau daukenek sintoma gitxiago eta, batez be, min txikiagoa igartzen dabe.

Azken ikerketen arabera, ikaskuntzan **kontzentrazioa eta oroimenerako gaitasunak gehitzen dauz ariketak.**

Aldarte ona. Ariketa fisikoak aldarte alaitzen dau, eta plazer iturria da bere horretan. Sano gomendagarria da depresinoari aurre egiteko eta autoestimea igon eragiteko.


Bizi itxaropena. Hainbat ikerketak frogatu daben lez, kirola astean hirutan 30-45 minutu egiteak bapateko heriotza goiztiarraren arriskua gitxitzen dau. Ibiltea, arineketan egitea eta bizikletan jardutea dira, itxura guztien arabera, luzaroan bizitzeko sekretuak.

Biziena edo minbizia. Ariketa erregularrak hormona batzuen mailak gitxituz koloneko eta bularreko minbizia izateko arriskua gitxitzen dau.

Bitxiik

IRAK-eko URA EUSKAL ENPRESA BATEN ESKUETAN

Gipuzkoako enpresa batek 14.000 milioi pezetako kontratua lortu dau Irakeko ura tratatzeko. Datozen urte biotan, Intagsa ingeniari enpresak hogeita bat instalazio egingo dauz edateko ura garbitzeko eta beste lau Bagdad uriburuko hondakin urak tratatzeko. Intagsak hamaika traba gainditu behar izan dauz Sadam Husseinen herrian kontratu hori jadesteko, Nazio Batuen Erakundeak blokeoa ezarri eutson-eta Irakeri 1990ean. Orain dala bost urte apur bat legundu eban blokeo hori, Petrolioia elikagaien truke izeneko egitasmoaren bidez. Egitasmo horrerik esker, oinarriko produktuak eta azpiegiturak erosteko baimena lortu eban Irakek, baina ondino be egoera latza jasan behar dabe irakiarrek. Nazioarteko erakundeek askotan salatu dabe blokeoak herritarrei eragiten deutsezan ondorio larriak.



MARTITZERA ASTE BITAN HELTZEKO SISTEMEA ASMATU DABE

Gaur egun astronautek zortzi eta hamar hilabate arteko epea beharko leukie Lurretik Maritzera heltzeko. Israelgo Ben-Gurion unibertsitateko zientzialari batzuek erregai nuklear bat erabilita pare bat astetan ailegatzeko modua dagoala frogatu gurean dabilz. Amerizio-242 osagaiak egingo leuken fisio nuklear kontrolatuari esker abiatuko litzateke espazio-ontzia; propulsaizailearen diseinua, dana dala, amaitu barik dago ondino. Osagai hori sortzea lar karua dala aitortu arren, espaziorako bidaiak egiteko energia nuklearra erabilten hasiko dirala iragarri dabe zientzialariek.

VIAGRA DISKOTEKARA BIDEAN DAGO

Inpotenziaren kontrako botika honerik erabilera barriak emoten hasi jakoz Britainia Handiko diskoteketan. Halan, Viagra ospetsua beste droga batzuek naztaten hasiak dira, batez be sexuaren drogagaz, hau da, estasiagaz. Manchesterreko Unibertsitatean egin dabezan ikerlanen ondorioz jakin da droga barriarena. Aurki, estasiak sortu eragiten dauan kitzikadura sexualaz ganera, pilula urdinek sortzen daben eragina dauka Sextasis droga barriak. Izan be, estasiak kitzikatu bai, baina ezinezko egiten dau zakilaren erekzinoa. Hainbat medikuk nastaketaren arriskua aitatu dabe, droga bietan dagozalako odol-hodiak zabaltzen dabezan osagaiak eta horreek apoplexia edo bihotzekoa eragin daikielako. Beste mediku batzuen esanetan, ganera, denbora larregizko erekzinoek inpotentzia eragiten dabe.

LE RriiAK

BEHARGIN ZORIONTSUAK EZ EI DIRA ERRENTAGARRIAK

Kanadako psikologo talde batek behargin eta enpresa buruen arteko hartu-emonak guztiz gaiztotzeko moduko teoria argitaratu dau. Robert Sinclair eta Carrie Lavis psikologoek arabera, behargin zoriontsuek denbora larregi galtzen dabe euren lankideakaz aldarte onari eutsi gurean. Aitatu daben lez, behargin ozpinduek ez dabe ezegaz be amets egiten eta euren lana al bait ondoen bete baino ez dabe egiten. Halan, eguneroko bizimodua ahaztea lortzen dabe. Antza, produktibitatea igon eragiteko teoriak modan ipini dira enpresa handietan. IBM eta Britisk Airways-en kasuan, enplegatuek "Hot desking" izeneko errendimendua igo eragiteko teknikea jasan behar izaten dabe. Halan, mahai eta jesarleketan behar egin ahal izateko, lankideak baino lehenago heldu behar izaten dira beharlekura.



POTE BAT NIKOTINA, MESEDEZ!



Jakina da erretzea askotan erreflexu baldintzatua besterik ez dana; besteek erre, ba, guk be bai. Bada, ostera, sarritan gertatzen dan beste erreflexu bat: tabernan gagozala, tra-goak hartzeagaz batera bizten doguz zigarroak. Halan, Estatu Batuetako Eric Westman doktorea erretzaile ohien tabako premia engainatzeko modua asmatu dau, zelan eta nikotina likidoaren bitartez. Modu honetan, noberak tra-goari nikotina tanta batzuk botata tabernatik urten ahal izango dau zigarrorik erre barik. Hemendik aurrera, erretzaile ohiak arazo bakarra eukiko dau, ezta? Zelan itzi edateari?

HIRU DIMENTSINOKO MAPAMUNDIA EGIN DAU NASAK



Munduaren mapak dimentsino bikoak ziran orain artean. Aurrerantzean, ostera, errelieba be eukiko dabe, NASAK hiru dimentsinoko lehenengo mapamundia egin dau Estatu Batuetako Kartografia Agentziaren laguntzaz. Hiru dimentsinoko mapea egiteko, Endeavour espazio-tranbordadoreak batutako datuak erabili dauz NASAK. Igazko zezeilean hamaika egunez Lurraren inguruan jira eta biraka ibili zan Endeavour behar beste neurketa egiteko. Hogeita hamar metroik hogeita hamar metrora neurketa egin eta milioika puntu marraztu ebazan, ostean mapea osotzeko erabili diranak. Informazino hori guztia www.jpl.nasa.gov/srtm helbidean eskuratu leiteke.

HAMELINGO

TXIRULARIA

Eskolako Gurasoen Elkarteak "Hamelingo Txirularia" izeneko antzezlan eskaini euskun zezeilaren 3an, eskolako oktogonoan. Lan honen prestaketarik handiena, Karmele Uriarteren ardurapean egon zan. Entsausuak urtarrilan hasi ziran eta partaideak, oso gogotsu ibili ziran lan eta lan. Elena Terrerosek, eskolako irakaslea, musikaren ardura hartu eban.

Antzezlanak arrakasta handia lortu eban, eta itzelezko giroa ikusi genduan oktogonoan. Honen ostean txokolatea banatu zan eta 5:30etan, pilotalekuan ume txikiak olgetan ibilteko jolasparkea euki eban.



KORRIKA



Aurten Korrika izan genduan Bakion. Hau dala eta, martiaren 30an, Korrika- Txiki eguerdian ospatu zan, eta Korrika etorri aurretik, Triki-Afaria euki genduan Bolibar Jatetxean.

BERTSOTAN

Uda sasoiari ohitura dogun lez, euki dogu aurton be bertso afaria. Agorrillaren bian izan zan Bolibar Jatetxean; bertan, Jon Maia eta Unai Iturriaga egon ziran abestuten. Esan behar dogu bertso saio ona eskaini euskuela eta entzuleak gustura egon zirala. Hain giro ona egon zan ze, bertsolariak saioa amaitutzat jo ebenean, jendeak segitzeko eskatu eban, bai eta eurek jarraitu be. Entzuleak sano gustura egon ziran seinale ukazina da hori. Halandaze danok pozik, bertsolariak, entzuleak eta antolatzaileak.

Hor dozuez euren saio hasikerako bertso bi.



JON

Gabon guztioi lehendabiziko hau ez da giro motela bete bete ikusten dogu banketa hontatik gela erloju horrek agindu du ta hasi behar da honela telebistako teleserie britanikotan bezela.



UNAI

Gabon esanda aurkeztu gara nahiz ta ez esan izenik afal ostean ezin kejatu kantura gatoz azkenik inoiz ez neban erloju baten holango tin-tinik behintzat ezingo dozue esan puntualak ez garenik

Unai Beitia

JULIAN ORMAZA,

"KELE"



Esaera zaharra da, herri guztietan izaten dirala, holango pertsona mota bi; herriari beren gatza emoten deutesienak:

- Herriko kokoloa, apur bat atzera-tua dana,
- Eta herriko xelebrea.

Txirri: Nondik "Kele" ezizena, egiatzkoa Julian Ormaza izanik?

Kele: Bakion Julian Ormaza, izen honegaz, ez nabe auzokoek be ezagutzen, Kelegaz, barriz, txakurrek eta katuek be bai.

Tx: Izen guztiak euren istorioa eukiten ei dabe, Kelena zein da?

K: Neu be ez naz ondo gogoratzen, baina uste dot, zapatu iluntzetan eta, txurrustadak egin ostean, agoa be berotu egiten da-ta, beste askoren antzera, kantatzen hasten ei ginan, norbere gaitasunak agertu gurean. Niri gogoko abestia hau ei zan: "Con el bele, bele, bele..." eta gure erdere be halakoa zanez "con el bele" esan beharrean, "con el kele, kele, kele" esaten ei neban eta Kelegaz betiko gelditu nintzan.

Tx: 40 bat urtean bidegintzan (kamineru) ibili zara, ezta?

K: Soldaduskatik etorri eta Bizkaiko Aldundian sartu nintzan. Horretan emon dodaz 40 bat urte.

Tx: Kamineruek beti euki dabe alper fama. Zergaitik ori?

K: Guk fama eta beste batzuek lana. Zenbat zulo bete ete doguz basat-zaz, alkitrantz bete beharrean! Alperrak izan bagara edo ez, itaundu Bermeoko andra alargun gazteari. Hareri ez bakarrik etxerako bidea asfaltatu, baina sagar-makatzak be inausten geuntsazan. Harentzat ez ginan ez alper ez fardel. Gurea lako sarrerea, halako harrerea.

Tx: Zergaitik kamineru gehienok mutilzahar?

K: Horren errua alkitrantz dauka. Goizetik gabera alkitrantz bero artean jo eta ke, beharrean ibili eta egarrituta, neskak lagundu beharrean, tabernara joaten ginan eta. Danetarako ez dago

astirik.

Tx: "Gato negro" Txominen tabernak baleki...

K: Txominen tabernak berbaz baleki be, ezer ezin esan mahai ganeko farol baltzak hutsitu arte ez ginan etxeratzan eta.

Tx: Entzun dot inoz ganberrada bategaitik edo, Guardia Zibileak multaren bat be bota izan deutesuela...

K: Zapatu gaua zan, berandutxo be izango zan eta tabernatik etxerantzakoan, asmatu genduan, nor sanoago egoan jakiteko, makila bat hartu eta ate musturrean egoan bonbila apurtzea. Nik lehenengoan jo eta birrinduta behera bota neban. Ha zan emon neutsan zartadea! Hurrengo goizean Mezarako prestatzen nengoala non datozen Guardia Zibilak etxera 25 pezetako multea eskuetan daukela.

Tx: "¡Cuerpo a tierra!" deadar garratzak be, inoz entzunda ei zagoz?

K: Orduan "Juan-Galdu" eta biok ginan. Gauerdi inguru edo zan. Guardia Zibilak, sarritan lez, sasi atzean, gordeta, tabernatik urtekeran, nork esango, kukuka egoten ziran. "Juan-Galdu" nire lagunak, etxerantzakoan, ohitura eukan, diru xehe apurrak (kanbioak) zubitik behera botatzeko. "Oraintxe gagozak onak", esan neutsan

"ez dirurik ez ardaorik". "Hori be laster konponduko joguk, bildur barik" erantzun eustan. Hortxe jagok Bizkaiko kutxa zenbat gura dirugaz eta hantxe horniduko gozak. Bat barri eta bi barri gagozala, hara non gabaren ago baltzetik entzuten dogun deadar garratza: "¡Cuerpo a tierra!". Guardia Zibilak ziran. Bapatean etzun ginan, baina zoritxarrez lokatz artean. Geure itxureari begiratuta bakarrik, barrezka, olgeta baten ametsa izango balitz lez, etxeratu ginan.

Tx: Neskalgunen bat be nozoz euki ei zenduan?

K: Neskalgun edo antzekoren bat bai, baina laster apurtu neban. Behin baten, itsu-mutsuan, hasi jatan esaten, lagunak be esan deusiela, mutil ona nintzala baina, batzuetan gautxoria eta zurrutzailea. Nik erantzun neutsan ea lagunak ez eutsiezan esan beste batzuetan pasatzen nebazan logurak eta egarriak. Hantxe apurtu genduan.

KELEK bere irribarreagaz dinost:

GAZTAROAN ZORO
EI NINTZAN AGERTU
OSASUN UMOREA
INOZ EZ FALTATU.
BURUA ZENTZUNDUZ
PAUSOA LABURTU
GAZTE ZORO EDO
AGURE PRAKERREA
ZER ETE DA HOBEA?

ITXAS-ALDE FRANTZIAN

Allez! Dansez! Dansez!

11 urteren ostean Itxas-Aldeko kideak La Reolé-ra itzuli ginan. Harrera ona egin eusken aspaldiko lagunek. Bertan, gure kultura ezagutzera emoten ahalegindu ginan beste talde atzeritarraz batera: Argentina, Yugoslavia, Frantzia eta Estatu Batuak. Azken talde honegaz, futbol partidu bat jokatu genduan euripean (ez dago esan beharrik nork irabazi eban). Dantza egiteaz ganera, beste gauza batzuetarako aukerea be euki genduan: gauzez apur bat urten, herria ezagutu, beste taldeetako kideakaz hartuemonak izan...

Etxera estres barik heltzeko, aisirako aukerea be euki genduan, hiruzpalau egun emon genduan-eta Disneyland Parisen. Umetako oroitzenakaz bat egiteko abagunea izan genduan, izan be, Mickey eta Donald Bakiora etorteko gitxi falta zan.

Frantziako historian hiru euskal izen honeek nabarmen geldituko dira: Somarriba, Beloki eta Itxas-Alde!

Anartz Ormaza



Arteragoko TXIRRITXOLaren sail honetako erantzun zuzena hauxe izan da: "ZUBIETA baserria".

IRABAZLEA: **Xabier Uriarte** eta beraren laguna TXOBERNE tabernan afaria mauka-mauka jaten. Agur!

ZUHUR IBILI

ZELAN DAUKA IZENA ETXE HONEK?

Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen Kultur Etxera. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia. Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan.



HEMENDIK HILABETE GITXIRA ORDENAGAILU GELEA INSTALATUKO DA

Hemendik hilabete batzuetara Turismo Bulegoko beheko solairuko geletariko bat atontzeko obrak hasiko dira, bertan zibergelea instalatzeko.

Instalazio barri horretan bederlatzi ordenagailu jarriko dira eta guztietan egongo da Internetegaz konektatzeko aukera egokia, gaur egun mundu osoan gehien erabiltzen den informazio biderik osatuenagaz. Holango instalazioak gero eta ohikoagoak dira gure geografia osoan eta horreei esker erabiltzaileek aukera ezin hobea eukiten dabe gero eta interkomunikazio maila altuagoak daukazan gizar-tetik parajeago egoteko eta era guztietako ikasketak egiteko derrigorrezkoa den zerbitzua eskaintzen dabe.



MARTXAN DAGO BAKIOKO ORGANO BARRIA

Bakioko Udalak guztira 12 milioi pezetako inbertsinoa egin dau Andra Mari parrokian instalatu den organoa erosteko. Musika tresna honek 586 hodi daukaz eta oso ospetsua da "Karl Schuke" Alemaniako etxean erosi da.

Musika tresna honen bitartez, musikearen arloko azpiegiturak hobetzeko ahalegina egin da, herriari beste ondare kultural bat emonez. Ganera, organoak eragingo dauazan gastuak ordaintzeko egitasmoa abian ipini da. Beraz, gura dauanak organoaren hodi baten ohorezko titularra izateko aukerea dauka; hodi horri eroslearen izena ipiniko jake eta hasteko prezioa 20.000 pezetakoa da. Horretarako Andra Mari Eleizako Lagunen Alkartea deritxona eratu da eta talde hori izango da titulu horren kontsezioko kudeatzeako arduraduna.

DABORDUKO MAHATSA BATZEARI EGIN JAKO

Irailaren amaieran eta urriaren hasiera artean egin jake gure txakolina egiteko mahatsak batzeari. Esan deuskuen lez, aurtun uztea sano ona izango da, abuztuan eta irailean herriko haizea ibili dalako eta horretxek mahatsa heltzen lagundu dalako; halandaze, aurtengo txakolinaren graduazioa 12 gradu ingurukoa izango dalakoa dauke.

LUR AZPIKO GARAJEAREN OBRAK ERRITMO ONEAN

Maila freatikoagaz sortutako arazoak konpondu ostean, erritmo onean segitzen dabe Itxas Begi Bat eraikinaren azpiko garajeko obrek. Behar honeek 2002ko lehenengo hilabeteetan amaituko dira; guztira 12 m2ko 87 egingo dira. Une honetan hainbeste adjudikatuta dagoz eta 34 plaza baino ez dira geratzen. Adjudikazinoa 50 urterako izango da eta 2.200.000 pezetako kanon finkoa ordaindu behar da, gehi 5.000 pezetako kuota bat urtero plaza bakoitzeko. Garaie plazaren bat eskuratzeko interesa daukenei, udal bulegoetara deitzea edo joatea eskatzen jake, bertan beharrezko argibideak emongo jakez eta.




“BAKIJORI GORATZARREA” BAKIORAKO KANTA BARRIA

Joan dan garagarriaren 7an, “Bakijori Goratarrea” estreinatu zan herriko Andra Mari parrokian. Goratarre hori herriaren omenezko kantea da, Pascual Barturen bakiotarrak konposatu, Manu Etxebarriak idatzi eta Bakioko abesbatzak kantatzen dauana. Ekitaldian abesbatzak berak hartu eban parte, bai eta Itxas-Alde Dantza Taldeak, herriko txalapartariak eta gure Ales Larrazabal piano-jole bikainak be. Emonaldia kalitate handikoa izan zan, eta hainbat eta hainbat jende batu zan elizan.

Kanta hau dala-eta, abesbatzeak CD bat grabatu dau kanta horregaz eta bere emonaldietan kantatzen dauazan kantarik sarrienakaz. CD hori Turismo Bulegoan erosi ahal dozue, edo osterantzean, Abesbatzako kideei eskatuta eskuratu daiteke.

POSTETXEA BEHARREAN

Estankoaldean biribilgune barria egiten hasi diran ezkerreko, egungo posta bulegoa Olaskoetxeke ondoko lonja batera eroan eta daborduko beharrean hasi da. Bulego barriak sortuko dauazan gastuei aurre egiteko, lankidetzaz hitzarmena sinatu da Correos erakundeagaz, udalak eta erakunde horrek gastuak erdi bana ordaintzeko.



ESTANKOALDEKO BIRIBILGUNEA EGITEKO BEHARRAK MARTXAN

Udaleko lan taldeak irailean ekin deutse Estakoaldeko biribilgunea burutzeko beharrei. Biribilgune honetako zereginak bi izango dira: batetik, trafikoa antolatzea eta ibilgailuen abiadura gitxitzea, eskola ondoko inguruan; eta, bestetik, ingurunea edertzea eta urbanizatzea Mikel Etxearen aurrera lbarretako espaloia luzatuz. Beharrak abenduan amaituko dirala aurreikusita dago.

JOSE RAMÓN ANDAREN ESKULTUREA URRIAN



Segur antzean, Txirritxola argitaratzen danerako, moile punta-ko muturrean José Ramón Anda eskultore naparrak egindako obrea eukiko dogu ikusgai. Eskultorea hamar metro izango da luze eta Bakioko ingurune zoragarri hau ederragotuko dau. Obra honetan ardatz beretik lotutako bela bi ikusi ahal izango dira, euren artean metro erdiko tartea itzita.

BESTE AURREZKI KUTXA BAT BAKION

"La Caixa" aurrezki kutxa katalanak abuztuan zabaldu eban sukurtsal barria Bakion. Halan, gure herriak opesten dauazan zerbitzuak apurka-apurka hobetu eta handitzen dabilz, Bakio gero eta herri erakargarriagoa eginez. Aurrezki kutxa hau Bentalde auzoko 84.ean dago (Idoia etxea) eta telefono zenbakia 94 6193437 da.



UDAGOIENEN PROGRAMAZI- NOA KULTUR ETXEAN

Urtero lez, hemendik gitxira aurten be martxan ipiniko dira era guztietako ikastaroak gure Kultur Etxean. Informazioa emoteko, hilean-hilean boletin moduko bat bananduko da herrian. Beraz, zuhur ibili, Kultur Etxeak eskaintzen dauazan jarduera guztien barri jakin gura badozue.

FELIENA, HOTELA IZATEKO BIDEAN

Udalak maiatzaren 30ean ago batez erabagi eban Feliena saltzea. Finka horrek 14.119 m² daukaz eta XIX. gizaldiaren amaieran eregi zan. Halan, udalak finkea saltzeko jendaurreko lehia-ketea zabaldu dau; horretarako, 197 milioiko eskaintza egin eta bertan ostalaritzako jarduera bat ezarri beharko da, gaur egun Bakiok arlo honetan daukazan azpiegiturak hobetu gurean. Era berean, aitatu behar da eraikin hau zaharbarritukeran gaur egungo itxureari eta fatxadei eutsi beharko jakela.

AURRERA GASA INSTALATZEKO BEHARRAK


Ikusi ahal izan dozuen lez, gasa eta zuntz optikoa instalatzeko beharrek aurrera jarraitzen dabe. Halan, biltegi eta kalanizazio nagusia udagaien honetan amaituko dira; ostean, etxeetarako lotuneak egin eta datorren urterako oso-oson burutuko da obra garrantzitsu hau. Beraz, hilabete gitxi barru gozatu ahal izango dogu zerbitzu honegaz.



ABENDURA BITARTEAN ALDUNDIAK ARAU SUBSIDIARIOAK ONESTE AURREIKUSITA DAGO


Pasa dan neguan, zezeilaren 28an, udal korporazioak behin-behinean onetsi ebazan arau subsidiarioak. Arauotan zehaztuta dagoz Bakion eregi eta baimendu ahal izango diran eremuak eta jarduerak. Halan, Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko onetsi beharko dauz abendura bitartean; behin hori egin ostean, urigintzako jarduketa guztiei ekin ahal izango jake. Horreetarik aurreratuen dagozanak Bistalai eta Areagakoak dira. Era berean, lehenespena emongo jake Solosarreko gizarte etxebizitzei eta kiroldegia.

SAN JOAN DOLOZAK 2001



Aurtengo herriko jaietako urtero lez abuztuaren 28an hasikerea emon arren, aurreko asteburutik jaietan ibilteko gogoak igarri ziren 26an egindako nekazaritza azokan. Aste barruan egindako ekitaldiak, beharbada, ez dira lar jendetsuak izan; dana dala, umeak, esaterako, parra-parra ibili dira eta gazteek taberna eta txosna giroa gurago izan dabe, azkenengo urteotan ikusten da jokaereari segituz, behintzat. "Kondharian" dantza ikuskizuna azpimarratu beharra dago, probalekua jendez samaragino bete eta ikusle guztiek pozarren urten ebelako dantza eta musika ekitaldi zoragarri honetatik. Beste ekitaldien kasuan, erantzuna nahiko desbardina izan da. Edozelan be, jaiak beti jai horretan ibili gura dauanarentzako. Jaietan ibilitakoen artean ez dira gitxi izan ondo baino hobeto pasatu dabena.

SAN JOAN DOLOZEKO ARGAZKIAK



SAN JOAN DOLOZEKO ARGAZKIAK



SAN JOAN DOLOZEKO ARGAZKIAK



jaiak 2001eko urria

SAN JOSETAKO HOGEITALAU ORDUAK

Aurten San Joseak ezbardin ospatu doguz guztiz, buzterri batzuen probak faltan igarri arren, adin guztientzako ekintzak burutu dira, ume zein zahar, danek izan dabe euren lekutxua.

Baina, pilotalekuan be, "hogeitalau orduak", 17tik 18rako goizalderantz eten egingo ziralakoan egon ginan eta ez nafarrieriak jota, euri zaparradak baino; pilotaleku honen kontua ez da aste betean limoi ura hartuta igarotzen dan gripea, gaixo kronikoa baino.

Idea bat egin daizuen, txirritxol zaleok, txapelketa bat antolatzerakoan, pilotari guztiei esaten deutsegu Bakiora etorri baino lehenago deitu daiela pilotalekura, jakiteko ea bustita dagoen ala ez. Ez dakizue, benetan, zelango suertea eukiten dogun bai Dagonilako zein San Joseetako jaietan profesionalen esku pilota partiduak ikusteko. Gure ustez batan batek orduak emoten dauz errezetan euririk egin ez daian. Konturatuten zarei egunkarietan holango zeozer irekurriko bagendu, "Bakioko frontoi estalian ezin izan dira partiduak jokatu inetasiak, xiri-miriak edo hezetasunak guztiz busti daualako".

Baina atzera be hartu daigun "hogeitalau orduen" haria eta eman deiogun daukan garrantzia, seguru antzean egiten dogun txapelketarik gogor eta bitxiena izango da eta. Aurten, herriko hogeitalau pilotazale ibili dira gau eta egun, hutsik egin barik, erreskadan partidu guztiak jokatuten, goizaldeko lauetan edo seietan jokatuteari garrantzirik emon barik; ahalegin handia beraz, baina zeozer gehiago be bai.

Edozelan be, bihoaz Alaitasuna Pilota Taldetik eskerrak hogeitamabi herritar honeei, eurek barik Poto eta Goti ezin izango ziran-eta txapelduna izan.

ALAITASUNA PILOTA TALDEA

OHARRA:

Arlo honetara bialduko diran eritxiak izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz.

Beste aldetik, ez dogu irain-garriztat jo leiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.

TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozuentzako salneurri barriak. Salneurriok 2000ko urtarriletik aurrera dagoz indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkerroan, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94 619 33 69.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale2 / ale 1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87 x 66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66 x 40)	5.000	3.750	2.500

Eskerrik asko etorteagaitik!



Bentalde, 75
Bakebarri
Tfnoa.: 94 619 40 59

Sabin'en Jatetxea

Bentalde, 72
Estibaliz
Tfnoa.: 94 619 40 41

48130 BAKIO

(H)ORMATZA BASERRIA



Hormatza, Bakion, nahiko izen arrunta da, bai abizen moduan eta bai toponimo moduan, izan be, danok ezaguten dogu Hormatza Jauregia. Baina baserria?

Argitu behar dot, Hormatza izatez, "h"-gaz idazten zala, baina XIX. mendearen amaierarako Aranaren ortografia "barria"gaz, h-a galdu eban eta Ormatza lez geratu.

Hormatza sendia nahiko ezaguna zan Bakion. Inguruetako famili dirudun eta boteretsuenetakoak. Goitisoloz auzoan eukazan bere lur eta jabegoak. Baeuken dorretxe bat, geroago jauregi bihurtuko ebena, eta aldamean baserria eregi.

Famili bera ez zanez Bakion bizi, uri eta uriburutan baino, baserrian Bakioko beste familiaren bat bizi izaten zan errentadore moduan, baserriaren izena hartu ebana abizen moduan.

Halan izan zan Mintuako Hernando eta beraren Andra Maria Perez-egaz, 1600 aldera Bakion bizi ziran senar-emazteak. Euren semea Martin Minituakoa, Otxoategiko Maria San Joan-egaz ezkondu zan. Eta honen seme bat, 1624an jaiola, Martin Azeretxogoitia eta Minituakoa, eta 1653an ezkondu zan. Hormatzakoa lez ere ezagutu zan, seguruenik, aita heldutasunean bere seme-alabakaz, Hormatza bizi izan-



go zalako.

Holan, neba-arrebak eta seme-alabak Hormatzakoak legez ezagutu izan ziran hortik aurrera. Eta holan orain arte. Aitatu datu moduan, 1704an Basarteko Martin bizi zala bertan eta 1748an Bautista Hormatza, nahiz eta Ciudad Realeko dukea jaubea izan, eta geroago, Mortaeako markesa.

Dana dela, eta izan zana zala, Hormatza gaur arte bizi-bizirik heldu dan bertoko izena da, herrian nahiko zabaldua dagoana.

Anartz Ormaza


ESKOZIATIK BUELTAN

Itxas-Alde taldeko dantzari eta musikook beharrean jarraituten dogu eta lan horren emoitzariko bat Eskoziara egin barri dogun bidaia izan da. Jorrailaren 11an Loiotik urten eta 17an etxera itzuli bitartean nahiko denbora euki genduan geure dantzen erakusketa zabal bat eskaintzeko Aberdeeneko inguruetan. Eskoziara bera eta Eskoziarren izakerea apur bat ezagutzeko be nahiko aukera.

Hainbat ekitaldi eskaini genduzan eta eurek "workshop" esaten daberen dantza ikastaro inprobisatuak be egin genduzan. Hango jendea prest dago plazara urten eta bapatean atzerriko dantza ezezagun batzuk ikasten has-teko. Badogu, orduan, zer ikasi eurei.

Beste alde batetik, Eskoziako paisaiak oso politak dirana jakingo zenduen, baita uriak be. Ikustekoak dira Aberdeen eta, batez be, Edinburgheko erdialdeak eta bere jardin botanikoa eta, zer esanik ez, Eskoziako lurral-de guztian zabaldua dagozan gazteluen edertasuna.

Halandaze, beste esperientzia eder bat joan gara-nontzako.



BAKIOKO EHIZA ETA ARRANTZA ALKARTEA

Gure herrian Ehiza eta Arrantza Alkarte bat daukaguna be ez dozue danok jakingo, seguruenik. Horren barri euki daizuen, Alkarteko bazkide dan Floren Zabalagaz egon gara berbetan. Berak, hainbat gauza kontau euskun eta hemen daukazuez herritar talde honen ekintza eta ardurak.

TX: Nondik nora eta zelan hasi zan asmo hau gauzatuten?

F: 1998.ko udabarri inguruan hasi gintzazan beharrean asmo orokor bategaz, eta hau zan, herriko ehiza-zaleak herrian bertan antolatu eta kontrolatutea. Ganera, urte haretan kontrapasa zabaltzekotan egoan eta Bakion ez genduan lez alkarte ofizialik, kontrapasa horretan ehizatzea albo herrietakoan esku geratuten zan, gure kasuan, Bermeotarren esku. Halandaze, Alkartea sortu behar izan genduan geure lurretan kontrapasa geuk kontrolatzeko. Eta, hortik hasi eta 150 bazkide inguru eukitera heldu gara gaur egunean, euren artean bakiotarrak, udatiarrak eta kanpotarrak be dagozela.

TX: Ekonomi arloan, nondik horniduten zarie?

F: Tira, zazpi edo zortziehun mila pezetako gastuak izaten doguz eta era ezbardinak daukaguz diru hori batzeko. Alkartean sartzeko sarrera bat ordaidu baharra dago eta gero urtero kuota bat daukagu. Ganera, pasean eta kontrapasean erabilten diran postuak ordaindu behar dira. Horretaz aparte, Udalak, jendaurreko ekitaldietarako laguntzinoa emoten deusku (arrantza txapelketea, platerari tiro,...).

TX: Zaletasuna eta etorkizuna badagoz, orduan?

F: Hegaztiak dagozan artean, badago etorkizuna. Aurten Bakiorako urte txarra izan da. Horrek ez dau esan gura Bizkaia osoan holangoa izan danik. Leku baten pase eskasa eta handik bost kilometrora pase ona izan leitekez. Gero Foru Aldundia izaten da txosten orokorra egiten dauana.



TX: Ze eritxi daukazu ehiztari eta ingurumenaren arteko hartuemonaz?

F: Ni ehiztaria nazen lez, ba, eritxi ona daukat. Hori betiko arazoa da, ezta? Piztia hil edo ez hiltearena. Gaur egun ez da derrigorrezkoa ehizatzea jateko, baina ez da derrigorrezkoa be antxoak edo lebatza jatea, eta horrek bere hilda jaten doguz.

Ingurumenak orekatua egon behar dau eta horretarako Aldundiak galazotzen deusku txori mota batzuk hiltea.

Edozelan be, neure eritxiz, ehiztariaren filosofia ez da hiltearena. Ehiza egunaren bezperako eguraldia, haizeak, antzarrik edo txoririk entzuten bada, egunaren inguruko giroa edo lagunartea dira neuretzat garrantzitsuenak, tiro bat bera be bota barik etorri arren. Neure eritxiz, ehiztaria kasu askotan naturearen orekatzaile lez ikusten dot.

TX: Ze ekitaldi antolatuten dozuez urte barruan?

F: Urtero izaten dira antzekoak. Batzuk jendaurrekoak eta beste batzuk zarratuak, hau da, Alkarteko bazkideentzako diranak, bakarrik. Joan dan jorrailaren 14an arrantza txapelketa bat

izan da eta kanpoko jende asko etorten da. San Inaziotan platerari tiro egitek txapelketea antolatuten dogu eta partaidetza handia egoten da. Horreetaz aparte, gaztetxuentzako lasunen harrapaketa lehiaketa bat antolatu gura dogu berton, orain harte Gatican egiten zana arrankariekaz. Udan txalupetako arrantza txapelketa daukagu baina horren arrakasta itsasoaren egoeraren menpean dago, ze baimena aurretiaz eskatu behar da egun konkretu baterako eta itsasoa bizi badago ez dago arrantzan egiterik. Esan behar da, aurtengure bazkide bat, Gorka Renteria, munduko tiro-pitxon txapelketara aurkeztu dala, Bizkaiko txapelketan postu bikainean geratu ostean.

TX: Aurrerantzerako badaukazue egitasmo barririk?

F: Daukagun arazo bat paserako postuena da, ze lan handia egin behar da mendian iminteko eta Aldundiak denboraldia amaitukeran kentzeko agindua emonda dauka eta behar bikoitza da hori. Lortu gura doguna da postuak mendian izteko aukerea eukitea, ze horretara lana hainbat gitxitu leitike.

IPUIN E ROTI KO A

ezusteko

egon nintzan, harritia, eta ulertuko dozue hasikera baten apur bat izututa egotea. Bai, aitortzen dot niretzat barria zan egoera horrek ikara apur bat sortarazoten eustala, eta nire buruaren zati ilun batek berandu baino lehen alde egitea erregutzen eustala. Nork esan behar eustan niri, koadrilako neska ligatze txapelketan hainbeste bider irabazle suertatu nintzanari, maitasunak hain ezustean harrapatuko ninduala?

Orain dala gitxi ezagutu neban, azterketak amaitu eta hurrengo egueneko gauean. Asaotik ikusi nebanean, hankarteko kilima ezagun horreek sentitu nebazan berehala, eta zer esanik ez aurkeztu eustaenean. Gau beroa zan zezeila izateko, eta horregaitik tabernan kamiseta soil bat eroan bere gorputz liraina estalduz. Betiko pentsamendu lizunak euki nebazan, hoba ez, baina oraingoan zeozer desbardina egoan. Baegoan ordurarte imaginatu ezin neban sentimendu bat, desio bat, pasio bat. Neskatan gazte hasi nintzan, hamalau urtegeaz edo, eta sexuaren plazer ezkutuak ezagutu nebazanetik horreekaz oheratzea bihurtu zan nire bizitzearen ardatz nagusia. Gasteizko tabernetan lehenengo musuak, Florida parkeko jesarlekuetan lehen igordi eta laztanak, neska batek lehenengo biderrez masturbatu ninduan eguna... Danak garrantzia galdu eban bapatean, eta benetan dinotsuet esperientzia horreek guztiak gustura aldatuko nekezala momentu horretan beraren ezpain goxoak dastatu ahal izateagaitik. Gau osoan nahiko isilik

Hurrengo egunetan ezin izan neban burutik kendu. Haren irribarrea, haren ule kixkurra, haren esku politikak, ... Zenbatetan irudikatzen nebazan esku horreek nire bularrakaz olgetan, gorputz osoa igordi eta izter ondoak laztantzen... Eta beraren agoa... Ezpain horreekaz eukitako fantasiak ez dodaz bizitza osoan ostera be eukiko: gorputz osoa musukatzen eustan mihiak laztan goxoak egiten eustazan bitartean. Aginakaz kosk goxoak egiten eustazan titiburuetan, belarrietan, barrabiletan...

Laster jabetu nintzan egin beharrekoaz. Ezin neban horrela luzaroan egon, eta egoereari aurre egitea erabagi neban. Buruak zera esaten eustan: lehenbailehen ahaztea izango zala onena; bihotzak, ostera, nire sentimenduak onartzea eta amore emotea erregutzen eustan. Bertan milaka orratz sartuta be, ez neuke hainbesteko minik hartuko, seguru. Zoratu aurretik, telefonoa hartu neban, aspalditik ezagutzen neban neska bateri deitze-

hartu-emonak

ko. "Untze bat kentzeko era bakarra beste untze bat da" esan ohi eban beti nire koadrilako kide batek, eta ez jakon arrazoirik falta. Esaldia ondino buru barruan nerabilela, telefonoaren beste aldean ahots legun bat entzun neban:

- Bai, esan?
- Amaia? Kaixo, Eneko naiz.
- Eneko? Zer moduz, aspaldiko! - erantzunak nire arazoak ahaztea ekarri eban momentu batez - Dagoeneko nigaz ahaztuta zengozala uste neban.
- Badakizu ezetz, poxpola. Joango gara zinemara gaur gauean? Filmea zuk aukeratu, jakina - horrek ez eban sekulan be huts eginen.
- Ederto. "Otoño en Nueva York" oso ondo dagoala esan deustae.
- Bai, nik be antzekoak entzun dodaz - guzur galanta, hoba ez, baina ez zan sexu bila nengoala esaten neban lehenengoa. Ezta azkenekoa be, antza.
- Ganera, Richard Gerek sekulako lana egiten ei dau.
- Ados ba, zazpi eta erdietan Guridin?
- Bale, gero arte poxpolin hori.

Zergaitik eukezan neskek hain gogoko pelikula ziztrin horreek? Beti jasangaitzak begitandu jataz fotograma guztietatik erromantizismo kiratsa darien luzemetraia aspergarriak. Baina tira, egia da horreetaz beti baliatzen izan nazena neskak puntu-puntu iminteko, badakizue. Amaiagaz oheratu nintzan lehen aldia horre-

lakoia izan zan, esaterako. Aurretik kafe bat hartzen joan ginan, eguen baten alkar ezagutu eta gero. Baina beraren etxeragino lagundu neutsonena, ez eustan titiak ikutzen itzi be egin. Horrelakorik... "Los puentes de Madison" bodrioa irribarre bategaz iruntsi behar izan neban, eta sarrera ordaindu eta gero! Baina orduan, etxera nire autoan eroan nebanean, bere gorputzak eskaintzen eustazan plazer ezkuetak dastatu ahal izan nebazan. Ondo baino hobeto gogoratzen naz, bai horixe. Kotxean sartu eta gero, ez eustazan eskuak bularretik kendu, eta mihia eztarriragino sartzen eustan bitartean, gorputz osoa laztantzen eustan. Harrigarria izan zan filme batek zelan aldarazo eban beraren nortasuna. Nire gainean paratuz, frakak astindu batez kendu eustazan, eta hankatarrea muxukatu ostean, berehala zakila agoan sartu eban inoz egin deustaen felazinorik bortitzena eginez. Bere pasioak sekulako berotasuna sortarazo eustan, lehertzeko zorian nengoan, eta ondino ez dot ulertzen zelan ez zan ito bota neutson hazi piloa hestegorritik behera joan jakon bitartean.

Baina zoritxarrez, aspaldi ikasi neban sasoi zaharrak oso kasu gitxitan itzultzen dirala, eta hau ez zan salbuespena izan. Amaia neska jatorra da, bai, eta ikusi dozue sexualki parekorik ez daukala. Baina inpotenziaren mamuak nire ohean egin eban lo gau horretan. Alkarrerri musuak emoten gengozala, gure gorputz

biluzien izerdia sentitzen genduela, laino lodi batek burua estaltzen eustala begitandu jatan.

Orduan ulertu neban nire patua erabagita egoala, ez neukala horren aurka ezer egiterik. Sexuak gozamen ugari emon deustaz orain artean, eta nik bizitza osoan horrela izan behar zala uste baneban be, azkenean amodioaren beso luzeek besarkatu egin ninduen. Nork esan behar eustan niri mutil bategaz maitemindu behar nintzala? Bai, nire arazo guztiek badaukie berezko izena: Aitor, ia bi metro luze dan sekulako gizasemea. Irribarre maitegarria dauka, hortz perfektuak, eta beragaz egon nintzan aldi bakarrean ezin neban begirada bere giharretatik aldendu. Aitor, inoz aurkitu barri dodan homosexualitatea jasateko gauza izango naz? Zugatik sentitzen dodan amodioa aitortzeko adorerik lortuko dot? Aitor, lagundu egidazu erraiak erretan deustazan sutea begiradagaz amatatzen, askatu nazazu infernutik...

Daborduko ez dot beste ezertan pentsatzen, ez daukat ezertarako gogorik... Zure iperdia laztantzea besterik ez dot gura, zure ule kixkurrean galtzea, zure zakila agoan sartzea....

AMAIERA

EGILEA:
Pitilingorri
(Eneko Fernández)

IPUIN INTERAKTIBOA

Jonek, eskolatik etxera heltzen denean:

- Ama, ama! Eskolako lanak ditut egiteko; gaur ez noa zuekin parkera! Esan zuen Jonek lanen zorroa ateraz batera.

- Ikus dezagun - pentsatzen du Jonek bere baitan - Gaur, gure herrian, Bakion kontatutako ipuintxo bat asmatu behar dut.

Orritxo bat hartu eta idazten hasi zen:

"Orain dela asko, gure hondartza eder honen ertzean dagoen paseo maritimoaren lekuan, lehen, gaztelu handi bat zegoela diote, harresi handi eta luze batez inguratua.

Oso ederra benetan, baina ez bere barruan bizi zen printzesa baino ederragoa, zeren neska hau polita baino politagoa zen. Bere izena Martzelina zen, ilea urrearen kolorekoa, azala elurrarena, eta... buruan... eta buruan, txoriak!!!

Bai, tamalez, printzesa ez zen, ez, oso argia. Erregeak ezin zion lagun bat ere aurkitu, zeren printzesak ez zuen inor gogoko, eta ez zekien zeri buruz mintzatu inorekin.

Baina egun hartan, erregeari zerbitzu bururatu zitzaion: lehiaketa bat egitea, hiru proba jarritz, hirurak gainditzen zituztenen artean haren alabak senargaia aukera zezan. Hain jende ausartaren aurrean, eta abentura giro honetan, norbait gustuko izango zuelakoan bere alabak.

Leku guztietan zegoen printzesaren berri, zeren leku guztietan jarri zituzten kartelak: San Juan ermitan, Kiroletan, Bakeako parkean, Pereiran, Frontoian... Jatara ehizan joan ziren eta han ere bai.

Askotatu ziren dragoia hiltzen, Merlin aztiaren makil magikoa eskuratzen eta ilargiaren zaldunaren galtzontziloak erregeari eramaten. Guztiak, progak gainditzeko irrikan aurkeztu ziren, baina bik bakarrik gainditu zituzten: Jans eta Gretek.

Amaiera:

Ipuina zelan amaitu zeuk aukeratu ahal duzu:

- 1.- Printzesak Jans aukeratu zuen eta berarekin ezkondu zen eta luzaro bizi izan zen.
- 2.- Printzesak Gret aukeratu zuen, baina neska bat zela ohartu zirenean, sustoa pasa eta gero, lagun handiak izan ziren.
- 3.- Irabazle biak printzesa ezagutu zutenean ospa egin zuten handik txistu bizian.

Zuri ondoen iruditu zaizuna aukeratu, ni banao. Agur!

Egilea: Eider Gomez Abio. 10 urte

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Ahor, bada, bertoko euskerea. Askok pentsau leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun.

OHARRA

Era bitara dakarguz, esaterako, Bakion zelan esaten dan: "dxin" zelan idatzi behar dan: "dzin"

Zaratots berbak

Ale honetan Bakion zaratotsa adierazoteko erabilten diran berbetarik hainbat batu doguz. Berbok sarri askotan esklamazino modura agertzen izan jakuz zarata eta egoera zehatz batzuk irudikatu gurean; kontakizunei adierazgarritasuna emoteko dauken garrantzia kontuan hartuta, hona hemen:

ap: ap, hotza adierazoteko berbea.

blast: blast.

da: da, mailuz emoten dan kolpearen zaratea.

danba: danba, kolpe handiaren zaratea.

danga: danga.

di-da: di-da.

dinbili-dabala: dinbili-danbala. Esaterako kanpaiak ibiltzen dira dinbili-danbala.

dxi-dxi: sugearen mihiaren zaratea.

dxin: dzin. Arroparen zaratea.

grak: grak, bedarra ebagi edo haustura baten zaratea.

gruk: gruk, basurdearen zaratea.

kas-kas: zintzelaren zaratea, harria lantzean.

klak: txalamelaren zaratea itxikeran.

klin-klin: klin-klin: txirrinaren zaratea.

klon-klon: klon-klon.

korru-korru: usoaren zaratea.

krak: krak.

plast: plast, ezustean agertzen danaren zaratea.

preu: indar eginkeran egiten dan zaratea.

surrut: zurrut.

tanga-tanga: tanga-tanga, tiragomaz txoriak botatzea.

tra: tra.

traka: zaldiaren zaratea.

txiri-txiri: txiri-txiri.

txut: txut, beroa adierazoteko berbea.

SIN CITY SIX

KAFE ANTZOKIA 01-03-16

Aupa irakurleok!

Punk-roka eta rokanrolgazko interesa herri honetan biztuteko gurutzada bakarti eta ezinezko honetan, oraingo emonaldian "SIN CITY SIX" taldearen kontzertuaren kontakizunaz natortzue.

"SONNY VINCENT" punk-rocker mitikoak berotu eban kontzertua "telonero" moduan, bere eskola zaharreko punk-rokanrolagaz. Bere musika "DEAD BOYS", "IGGY POP & STOOGES" eta abarren kutsukoa da, baina bere taldeagaz ez genduan oso konpenetratuta ikusi (Europara datorren bakotxean bertoko talde bategaz jotzen dau, talde propiorik ez dauka eta, eta jira honetan Bilboko "SAFETY PINS" egaz jardun eban).

Gero "SIN CITY SIX" taldekoak plazaratu ziran. Talde hau Madrilen finkatutakoa da, bateria-jolea izan ezik danak "giriak" izan arren. Euren oinarria "PLEASURE FUCKERS" talde punk-rockeroarena da, baina abeslari aldaketa bategaz, lehen Kike Turmix bilbotarra egoan lekuan, orain Lee Robinson dago eta punk bidea itzita rockanroleroagoak dira.

Kontzertuari jagokonez, itxaroten gendua baino askoz hobea izan zan, izan be, agerian dago boskote honek daukan eskarmentua antzezleku baten ganean. Aitatu beharra dago euren trebezia rokeatzen. "AC/DC" ren ereduiko punteo eder eta izerditsuak egiteko Mike Sobieskyren abilezia gustatu jakun bereziki. Ikustekoak be, Lee Robinsonen abotsa eta egonezina, eta guztiaren ganetik abestiak gustatu jakuzala esan behar dot. Disko barria entzunda euki ez arren, abesti horreek entzuteak erosteko gogoia piztu euskuen.

Halandaze, gau izerditsu ahaztuezina, baina ganera gaua amaitu barik egoan eta askoz izerditsuagoa izango zan, honen osteko hogeitalau orduko pala txapelketagatik!

Agur!

ETOR DUOANDIKOETXEA

BARREGARRIAK

NIRI ZER ?

Lagun bi mozkor baten autoan dazala, halango baten, hareetariko batek besteari dinotso:

- Txo, egin ezkerretara! Benetan dinotsut talka egingo doguna! Ai ene, geureak egin dau! Ez deustazu entzuten ala?

- Niri zer dinostazu...? -besteak erantzun- zu zeu zara, baina autoa darabilzuna!

ARGALDUTEA

- Ikusi dozu, Mari, zenbat kilo galdu dodan uda honetan?

- Igarri be ez dot egiten - Marik.

- Jakina, galdu dana ez da ikusten eta.

OHITU EGINGO DA

Pantxike deritxon atsoak ahuntz bat erosi dau, baina... auzokoez haxe dinotse:

- Non gordeko dozu gauean, ba?

- Ortuari, ondo lotuta - Pantxikek erantzun.

- Hori ondo dago udan, baina neguan?

- Orduan etxean sartuko dot.

- Eta darion sudea?

- Denporagarrenean ohitu egingo da.

BIDEOAK

"PERSIGUIENDO A BETTY"

Komedia honetan, Betty (Rene Zelleweger) izeneko neskea, telebistako mediku-saio ospetsu baten agertzen dan aktoreagaz maiteminduta dago. Hau dala eta, errealitatea eta fikzinoa nahastu egiten dauz, eta maitearen bila Californiara doa. Baina bidaia honetan, hiltzaile bi be, erango dauz bere atzetik.

"ANITA NO PIERDE EL TREN"

Auzo txiker bateko zinean lan egiten dauan emakume batek, zine hau zelari botako daberen ikustekotan dago. Lan honetan dabileren gizon bategaz, hartuemon bereziak izaten hasiko da. Rosa Maria Sarda, José Coronado eta Maria Barrancogaz.

"TRAFFIC"

Pelikula honetan Steven Soderbergh zuzendariak, drogen mundua hiru ikuspuntu ezberdinetatik azaltzen deusku: drogaren aurkako kanpainan dabileren politiko, korrupzioaren kontra lan egiten dauan polizia eta espetxean dagoan narkotrafikante baten emaztearen ikuspuntutik. Pelikula honek lau Oscar lortu ebazan.

"BILLY ELLIOT"

Hamaika urteko mutil honek, boxeo klaseetan parte hartzen dau purrustadaka. Alboan, Wilkinson andreak, ballet ikastaroak emoten dauz. Apurka-apurka Billyk, bere benetakoz zaletasuna zein dan ikasiko dau. Pelikula hau, 1984an gertatzen da, herri ingeles txiker batean, Thatcher eta meatzeko sindikatoen arteko krisialdiaren sasoian.

LIBURUTEGIAREN

TXOKOA

Aurten, Liburutegian erreferentzi saila, hau da entziklopedien, hiztegien saila, euskeratzeko ahalegin handia egin dogu. Saila horri jagokonez, kalitate handiko materiala topatu daitekegu, baina erderaz. Horrek luzatzen dau kontsulta epea, ikasleentzako batez be. Horretaz aparte, euskeraz daukagun materiala, hau da, LUR Entziklopedia, gatx-gatxa da Ertaineko Hezkuntzako ikasleentzat. Bestaldetik, Gazte Entziklopediak informazino gitxi dauka. Hau guztiau dala eta, Txirritxola argitalpen honeek aurkezteko lekuri ezin aproposa dogu. Txanda honetan Planeta Entziklopedia Jakintza arloka dogu. 15 liburukitan sailkatua: Biziaren zientziak I eta II; Lurraren zientziak, Zientzia zehatzak eta esperimentalak, Geografia; Ekonomia eta gestioa; Teknologia; Historia; Artea; Hizkuntza eta Pentsamendua; Literatura; Jarduera fisikoa eta kirola; Musika eta Zinea; Gaurko gaiak; Euskal Herria eta Ikaslearen gida. Horreekaz batera entzuteko gida bat dago. Gida honetan, CD bitan musikearen historiaren zatiarik adierazgarrienak agertuko dira.

Bestaldetik, eskertu gura doguz liburutegi honeri egindako dohaintzak. Momentuz, liburutegiaren leku eta erabiltzaileen ezaugarriak dirala eta, ezin izango dogu dohaintza gehiagorik jaso. Zoritarrez, horregaitik, beharbada, zuok emondako liburuak ez dozuez liburutegian topatuko. Material hori beste leku batzuetara bidaldu dogu. Guztira, 600 ale inguru bialdu deutseguz GKE eta beste erakunde batzuei: Venezuelako Kontsulatuari; Libro solidario erakundeari, Etorikintza Fundazioari, Proyecto Hombre erakundeari, Unibertsitatei... Ganera, liburu horreek emon baino lehen inbentario antzeko bat egin behar da. Horrek liburutegiko beharginen lanaldia murrizten dau. Beraz, hemendik aurrera pozik emongo doguz liburuak jasoten dabezan GKEen izenak.

Udan irakurketa suspertzeko izandako jarduerak dirala eta, 2001 Espazioaren Odisea liburuaren izenburua atxakiatzat hartuta, zientzia-fikzinoa lelopean egin dogu behar, hau da, zientzi-fikzinoari buruzko liburuen sasoiari murgildurik gagoz. Egia bihurtu da eurek kontatzen dabena ala ez? Lehenik, zientzia-fikzinozko liburuak batu eta nagusientzako gida-zerranda bat prestatu dogu. Bigarrenik, ume eta gazteek parte hartzeko lehiaketa mota bi antolatu doguz: marrazki eta irakurketa lehiaketa, umeek maileguan hartutako liburuen pertsonaiarik kuttunenak margoztu daien. Gazteek liburuen laburpenak egiten eta zientzi-fikzinoan jardun dabe. Lan horreekaz erakusketa bat egin dogu. Hirugarrenik, liburutegira umeak erakarteko jarduerak antolatu doguz: ipuin kontalari saio bi eta birziklatutako materialagaz egindako txontongilo saio bat.

Udagoienari begira plangintzan zeozer berezia prestatuko dogu. Telebistaren diktadureari kontra aurre egiteko gurasoek ipuinak kontatzeko teknikak ikasiko dabez urrian. Zemendian, oster, Euskal Herrian desagertzeko arriskuan dagozan espezieak izango dira protagonistak. "Txikitero" xelebre baten biografia topako dogu liburutegian? Batek jakin.

EZETZ JAKIN!



7 ezbardintasun

1 2 3 4 5 6

7 8 9 10 11 12

Hemen, pitxer bi bardinak dira. Zeintzuk?

JULEN TAILERRA

ZERBITZU bizkorra

NEUMATIKOAK
GAS-TUTULUAK
ORIOA ALDATZEA
BALAZIA ZAPATAK

Tfnoak.: 946 19 48 97 - 656 78 14 74

BAKIO



GOTZON

Jatetxea

Bentalde, 135

Tfnos.: 946 19 40 43 - 946 19 43 30

BAKIO

Kafetxea
Itsasargi

Tfno.: 946.19.47.86

BAKIO

Txomin taberna

Ortuari, txorizo ta txakoliña



Herriko kirolaldean gaituzu

Tfnoa.: 946 19 40 70


UR-ZABAL TABERNEA

Tfnoa.: 94 619 43 05
48130 BAKIO

Maria Jesus **BIDASOLO**
MARLOIKO 'ko JANARIDENDA



Tfnoa. 94 619 30 06
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO



PATXI

Harategia Urdaitegia

Telf. - Fax: 94 619 40 08

patxiharategia@euskalnet.net
www.euskalnet.net/patxiharategia

Bentalde 171
SAIOA
48130 - BAKIO
BIZKAIA

atzera begira



Arlo honetako argazkiak sano ondo hartuten izan dira herritarren artean. Asmo honegaz eurrera egitekotan gagoz datozanetan be. Horretarako, baina, zeuen laguntzinoa behar-beharrezkoa izaten dogu, bai argazkiak guri itxiteko, baita argazkietan dagozanak nortzuk diran guri jakin eragiteko be.

Oraingoan be, eskolako argazkiak dakartsuegu hemengo honetan. Argazki hori 1929 edo 1930. urtekoa izan leiteke. Mutiltxuak goiko eskolako (ETXE-PINTO) ate aurrean zintzo-zintzo agiri dira argazkian. Nork esango jen, ezta?

Goitik hasita eta ezkerretatik eskoira honeexek doguz:

1. ERRENKADAN: Jose Luis URIARTE (BISTALAI) - Pedro URIAGEREKA (UGALDE) - Esteban UGALDE (UJERTE) - Juan ORMAZA (URKITZA) - Luis LARAUDOGOITIA (ZABALE) - Ramón ELORRIAGA (ORMATZA) - Julian GARAI (URGURU) - Eustakio URIARTE (URKITZAURRE)

2. ERRENKADAN: Faustino URIARTE (MAKUENA) - Félix ERKOREKA (AZERETXOGOITI) - Juan OLASKOAGA (OLASKOETXE) - Ruperto UGALDE (BEKOERROTA) - Jose Mari ANTJUSTEGI (ORTUBE) - Jesus MARURI (URIBARRENA) - Patxo ZABALONDO (LORREA) - Feliziano LARRAURI (ERROTATXU) - On Joakin anaia.

3.- ERRENKADAN: Manuel LARRAZABAL (GOIKOLEA) - Alejandro GONZALEZ (BENTA) - Iñaki MINTEGI (AMETZA) - Jose Mari ZABALA (ARTETXE) - Pedro BILBAO (GORRONDONA) - Angel ARRUGAETA (URIBARRI) - Leonardo BARTUREN (AGARRETXU) - Bitor BILBAO (AURREKOETXE) - Juan Antonio AZKORRA (ORTUBE).

Argazkia: Enrike ZABALAK itzita